

ADINEKO PERTSONAK EUROPAN (II)

Sail honetan lau eratako ekintzak sailkatzen direla esan genezake: 1) Aisia (denborapasak, kultura, kirola). 2) Abegi-egiturak balioanitzak. 3) Adineko pertsonentzako oporrak (denborapasa, kultur ekintzak). 4) Adin handikoentzako oporrak.

Ondoren eta hurrenez-hurren lau sail hauetan herrialde desberdinetan aurkitzen diren inizatibien berri laburra eskainiko dugu:

Erresuma Batuan, Joyce Cheesman, idazleak adineko pertsona talde bat *idazketa-proiektu* baten barruan parte hartzera eraman du. 78-86 urte bitarteko pertsonaz osaturiko taldekideak 14 urtez aurretik eskola utzitakoak ziren eta denak idazteko usadiorik gabeak izaki, hasieran ez zuten gai jotzen beren burua idazteko. Hirualdi desberdinetan, taldeko zenbait erregulari idaztera iritsi dirá eta honela beren bizitzako pasarte garrantzizkoen berri senideei idatziz uztera.

Honetarako aurrena leñen Mundu-gerratearen garaiko pertsonen grabazioak entzunerazten zaizkie, eta honela nor bere iraganaz hitzegiteko gogoá sentitzen du; idazleak denoraldian ematen zituen partaide bakoitzarekin eta oroitzapenak diktatzeko eskatzen zion. Gero bakarrik jarraitzeko esaten zion eta beste batengana jotzen zuen; azkenik idatziak elkarri trukatzeko zitzaizkion, emaitzak eztabaidatuz eta gai berriak bilatuz.

Bestalde, herrialde berean, *Friends by Post* (*Postabidezko Adiskideak*) deritzan taldeak bakartatearen aurka borroka egiteko, partaideen artean, ekintza intelektual luze baterako aukera eskaintzen du. Taldea harremanetan sartzeko da bakarrik edo isolaturik bizi diren pertsonekin. Taldekide guztiek galdetikun bat erantzun behar izaten dute (adina, sexua, interesatzen zaizkion gaiak, eta abar) eta gutxienez astean gutun bat idazteko hitza eman behar izaten du. "Postabidezko bikoteak" bakoitzaren interés eta gustoen arabera osatzen dirá.

Alemanian ekintza ugari eta desberdinak aurkitzen ditugu sail honetan eta aipamen labur bat besterik ez dugu egingo bakoitzari buruz.

Dependentzia handieneko adinekoentzako *bideo-grabazioak* erabiltzen dirá aktiboki parte hartuz "bizi-poza" sentí dezaten.

Saxonia Behereko Soltaunen, jubilatuen etxe batek *kultur aste* oso bat antolatzen du doan adinekoentzat, kontzertuak, kantak, dantza folklorikoak, antzezpenak, filmeak eta abar barne direla.

Stuttgarteko jubilatuen etxe batean poesi zirkulu bat antolatu da eta bertan poesia irakurtzera eta entzutera biltzen dirá jubilatuen, honetara bakartatea eta aspertasunari kontra egínez.

Berlinen "*Hirugarren Adinekoentzako Agentzia*" bat antolatu du hiri honetako Lan eta Arazo Sozialetako Senatuak eta 1980az geroztik "adinekoentzako interes-merkatu" bat dago martxan, lehendabiziko sei hilabeteetan 1.000 pertsona inguruk bertara dei egin zutelarik. Aisia, oporrak, formazioa eta abarri buruzko xehetasunez gainera paseoak bakarrik ez egiteko lagunak, kontzertura joateko kidea eta abar lortzen dituzte adinekoek agentziaren bidez. Alemanian beste hiri batzutan ere badira gisa honetako agentziak.

Saxonia Behereko Bielefelden *igandero bazkariak* antolatzen dirá, batez ere neguan.

Hogeitamar argitaratzailek elkar harturik "*letra handiko*" liburuak editatzen dituzte bista-arazoak dituzten pertsonentzako eta orain doenerdi bat urte 500 bat liburu zeuden honela inprimatuak. Zerrenda urtean bi aldiz argitaratzen da eta udal eta parroki liburutegiek gero eta liburu gehiago erosten dituzte honela inprimatuak.

Saxonia Beherko Kirol Fcaerakundeak eta Kirolarien Elkarteak *Hirugarren Adinekeen Kirol Astea* antolatzen dute, jubilatuen artean kirola sustatzeko, batez ere inoiz egin ez dutenen edo aspaldian egingabekoen artean. Partaidetza nabarmena izan dute eta bertan kirola eta jai-ekintza orkorra tartekatzen dirá.

Cuxhavenek erakundeetan bizi diren *adinekoentzako Joku Olinpikoak* antolatu ditu.

Hessen-Neuwiedeko Caritasek *aisia-egunak* antolatzen ditu beren etxeetatik irten gabe bizi direnentzat aukera bat eskainiz eta bizimodu aktiboago baterako bidea urratuz. Aurrena inkesta bat egiten da pertsonak bilatzeko. 60-85 urte bitarteko 72 emakumek erantzun zuten eta beren zaletasunak ezagutu ondoren, proiektu bat burutu zen: goizeko 9tatik arratsaldeko 5 arte elkarrekin egon ziren, eguerdian bazkalduz eta bitartean gizarte-jokoak, gimnasiak, dantzak, oroimena lantzeko ariketak, esku-lanak, meditazioa eta abar egin zituzten.

Frantziari dagokionez, jubilatuen partaidetza bultzatzeko zenbait ekintza bideratu dirá: hala nola Vern-sur-Sechen, *dos d'Orrierekoko egoitza*, belaunaldi desberdinak betera joatera gonbidatuz eta adineko pertsonen inguruan giro egokia sortez. Bertan kultur eta gizarte-ekintza ugari antolatzen dirá, adinekoak tartean direla. Belaunaldi desberdinetakoak parte hartzen duteneko oporraldiak ere antolatzen ditu. Bestalde *Caisse Interprofessionnelle de Prévoyance des Salaries* deritzonak *LES ARCADES: Gizarte-informazio eta ekintza gerontologikoetarako zentrua* sortu du Troyesko herrian, non biztanleen % 17 60 urtez gorakoak diren. Helburua asistentziakutsu guztia baztertzeko egintza bariatu eta egokiak proposatzea, jubilatuen partaidetza aktiboa eskatuz eta belaunaldien eta adin berekoen arteko harremanak bultzatuz. 4.200 m² dituen orube batean erasikia dagoelarik merkatal, administrazio eta kultur ekintza nagusienak burutzen dirá bertan eta ezinduentzako abegi-lekuak ere baditu. Unitate medikal eta paramedikal bat ere badu, kontsulta gisa funtzionatzen duena. Era guztietako ekipamenduak dituelarik, bere programa eta proposamenetan honako ekintza motak sartzen dirá: eskulanak, irakaskuntza, ekintza fisikoak eta ludikoak, gizarte-zerbitzuak, era askotako denborapasak. Adineko pertsonentzako klubak aldean eguneko zentruak abegi-gaitasun handiagoa dute eta sarrera ez da hain mugatua, eskaintza ere zabalagoa delarik.

Italian ere antzeko inizatiba bat aurkitzen dugu Florentziako 14.º auzategian "*Adi-*

nekoentzako Egunezko Zentrua" deritzanean, nahiz eta bertara ezinduek eta haurrak ere sarbidea duen. 50.000 biztanle dituen auzategi honetako 450 adineko hartzen dutu zentruak eta 12 adineko eta auzategiak hautaturiko 7 kidek osatzen dute administrazio-kontseilua. Iniziatiba interesgarri bat 150 lur-zati egitea izan da jubilatuek bana-ka edo bikoteka beren lorategia edo baratzak landu dezaten. Batek baino gehiagok jaten dituzte berek landutako baratzak. Era guztietako denborapasak daude bertan eta gerontologian espezialista direnek emandako hitzaldi-sailak ere antolatzen dirá. Arretaz lan egiten da belaunaldien arteko eten-dukarak sor ez dadin ere.

Danimarkako *Adinarteko Klubetan* gisa honetako beste edozein klubek burutzen dituen ekintzak aurkitzen dirá baina berauetan bereziki azpimarratzen da beste belaunaldietako eta adinekoen artean etenduririk ez sortzearen garrantzia. Era guztietako topaketa, trukaketa, elkarlanak eta ekintzak antolatzen dirá ildo honetatik. Zentzu honetan bertan *Asteburutako Klubak* ere antolatu dirá hiriburen eta gizarte-jolasak, filatelista-bilerak, dantzaldiak eta abar antolatu izan dirá larunbat eta igandetan.

Herralde Behereei dagokienean aipagarria da "*65pasaportea*" deritzana eta bizitza osorako balioa duena. Holandan ezarri zen lehendabiziko aldiz agiri hau eta edozein holandarrek 65 urte baditu eta bere ezkontideak 60 urte gutxienez, 6,50 florinetako prezioarengatik eskura dezake. Agiri hau duenak doan erabiltzen ditu ekipamendu asko eta beharpenak ditu zinema, dantza eta gimnasia ikastaldietan, garraio publikoetan (trenbideak ez dirá sartzen, zeren tarifazio berezia bait dute adinekoentza) museoetan, Adinarteko Unibertsitateetan, bidai eta kiroletan... Gobernuak biziki bultzatzen ditu erakunde eta establezimenduak pasaporte honen jabeen beharpen edo deskontuak egitera. Gobernuak beharpen hauen zerrendak argitara ematen ditu.

Oporren sailera pasatuz, herralde guztietan aurkitzen dirá era desberdinetako ekintzak: Italian, esaterako G.S.A. edo Adineko Pertsonentzako Kultur Zerbitzuen Multzoak, akultura gainditu eta gizarteratze-prozesuak bultzatzearen ildotik jokatzeko, adinekoak beren etxeetatik irten daitezen eta bereziki, adineko alarguntsak, izan ere hauek emakumearen sozializazioa baztertzeko duten usadioetan finkaturik bizi bait dirá askotan. Honela, oporrak abiapuntu egoki gerta daitezke inertzia gau gaindituz nor bere buru-kan konfidantza berreskuratu eta atzera bizi-

poza eta orekaren jabe bihurtzeko. Bi alditan antolatzen dirá oporrak: a) Apirilean adinekoek oporretarako proposamenen berri izaten dute eta hautaturiko programaren arabera taldeak antolatzen dirá, bilerak eginez, elkar ezagutzeko, bidaiari ezagutuko den alderdiaren geografia eta kultura ezagutzeko eta oporraldian burutuko diren ekintzak prestatzeko. Taldearen arduraduna dinekoaren senideekin harremanetan jartzen da. b) Arduradunarekin hautatutako tokira bidaiari eta bertan ekintza fisiko jolasezko, kulturazko, turistiko eta erlijiozkoak burutzen dirá. Partaideak ingurune apaletatik etortzen dirá eta apatia intelektualaren menpe egoten dirá sarritan eta lan egin behar izaten da estimulatzen.

Frantzian "opor intelektualak" deritzan esperientzia bat sustatu du enpresa-komite batek ehun bat **jubilatu** bi hlabetez egoitza batean bilduz. Helburua kultura eta ohitura maila desberdinetako jendea estimulatzea eta beren mugetatik ateraraztea izan da, gizarteratze handiago bat eta talde-gogoeta eraginez. Guzti hau komunikazio-ekintza baten inguruan antolatu da, egunkari bat idatziz eta argitaratuz. Ekipoan kazetaria, animatzailea, grafista, inprimatzailea eta koordinatzailea zeuden eta beraien hurburua jubilatuei egunkari bat egiten laguntzea zen. Gaian eukera, informazio-bilketa, idazketa, fabrikazioa eta abar jubilatuen eta ekipoaren arteko lankidetzaren fruitua izan da.

Jubilatuaren Elkarte Orokorra ere antolatu izan ditu hiru astetako *oporraldiak gai jakin batzuei ardatz gisa harturik*: "nork bere eskuez sortu", "sasoian bizi", "besteekin kontatu", "jubilatzea ongi bizi" eta abar. D.A.S.S. (Direction de l'Action Sanitaire et Sociale) delakoak oporraldi berezi batzuei antolatzen ditu *ezinduek* diren, gurgilaukietan daudenak barne direla, eta batez ere baliakizun ekonomiko handirik ez dutenentzat Bakoitzari eguna mila bat peseta inguru kostatzen zaio. Gastuaren gainerako karga erakunde sozialek hartzen dute beren gain.

Honezaz gainera, *ospizioetan bizi direnentzat* ere antolatzen dirá oporraldi bereziak.

A.P.A.L.P.A. elkarteak Bórdele aldeko 40 klub bere baitan dituenak, urtero 2.000 adinekorentzat *Nazioarteko Oporrak* antolatzen ditu jubilatuei protagonismo guztia emanez. Bórdele eta Montrealen artena trukeak egiten dirá eta mundu osoan barrena aurkitzen dirá hotel, egoitza eta ostatuak. Arduradun baten inguruan oporren aurretik eta ondoren bilerak egiten dirá. Proiektu honek diru laguntzak jasotzen ditu gizarte-

erakundeetatik eta jubilatuen bakoitzaren ordainketa bere baliabideen arabera erabakitzen da.

Badira, halaber, *Gizarte-laguntzarako erakundeek antolaturiko oporrak* ere, Normandiek Gaixotasun-Segurantzako Kutxa Erregionalak antolatzen dituenak bezalakoak eta helburua gizarte-maila apaleko jubilatuei atsedeen-aurkera hau eskaintzea da. Elkarrean erabakitzen da ñora joan eta ostatuak adinekoentzako bereziak ez diren hotel-egituratan aurkitzen dirá.

Azkenik, *Opor Urdinak* deituak aipatuko ditugu: 1975ean sortutako elkarte da, adinekoentzat oporrak antolatzen ditu eta Kostalde Urdinean egoitza ugari ditu. Adin desberdin arteko harremana indartzea du helburu eta urte soan irekita egoten dirá jubilatuen zein aktiboentzat. Erakunde desberdinekiko harremanean lan egiteko gastuak finantzeatzeari dagokionean.

Alemanian, Bavariako *Gurutze Gorriak Bidaia Antolatuak* ditu adineko eta ezinduentzat: agentzia bat 1975ean sortu zen München eta beste bat 1979an Nurembergen. Autobusak gurgilaukiak hartzeko moldaturik daude eta pertsonal paramedikalak laguntzen dituzte bidaiariak. Italia, Austria, Espainia, Frantzia, Jugoslavia, Skandinavia, Suitza, Puerto Rico eta Alemaniara beste eskualde batzuetara egin dirá txangoak.

Ruhr-Hattingeneko *Diakonisches Werk* orgintza-obra badu zainketa-etxe bat hiri honetan eta bidaiatzeko gauza diren guztiak demente sakonak izan ezik-TeXek uharte holandarrera eramaten dituzte oporretan autokarrez. Ezindu astunak izaten dirá, fisikoki edo mentalki, eta beren zainketa guztia hartuz jarraitzen dute, baina opor-programa normal bat burutzen dute txango, itsaso-egun eta abarrekin.

Danimarkan EGV da *adineko ezinduek oporretara* eramateaz profesionalki arduratzen den erakunde bakarra, garraibide egoituekin. Eguneroko girotik adineko ezinduek atera eta batez ere klima lehor eta berceara eramatea du helburu (nabaria da bidaiari eta bidaiari ostean askoz sendagai gutxiago kontsumitzen dutela pertsona hauek). Maila desberdinetako ezinduek nahasturik eramaten dirá eta egonaldiak malguak izaten dirá partaideen enkoardramendu-premien arabera. Enkoardramendua arabat profesionala izaten da.

Bestalde, bada *turismo-bulego espezialdu* bat eskaintza eta eskariaren arteko koor-

dinazioan, adinekoentzat eta baldintza berezitan, saldu gabeko plazak lortzen dituen prezio merkeagotan. Honela galera ekonomikoak agentziatan murrizteaz gainera adinekoak integratzen dirá talde turitikoetan. Abiatu baino egun batzu lehenago merkatal agentziek saldu gabeko plazak berri ematen dute eta zer baldintzatan emango zaizkien adinekoek. Baldintza hauetan bidaia egiteko prest dauden pertsonen zerrenda baten arabera deitzen zaie eta beherapenak % 10 eta % 50 bitartekoak izaten dirá.

Partaidetza

Herrialde Behereei dagokienean, adinekoek berek Gobernuaren laguntzaz *Hirugarren Adinekoen "Sindikatuak"* dei itezkeen erakunde batzu sortu dituzte berauei gizarte-ordezkaritzazko rol bat eskaintzeko, beste belaunaldiekiko harremanak bultzatzeko eta interesgune berriak sorterazteko. Antolamendu hau adinekoena eta adinekoentzat delarik, hiru azpisailetan banatzen da: katolikoa, protestantea eta neutroa. Enkoadramendua hamaren bat funtzionari segurtatzen dute, berauen soldadak 3/4 Gobemuak eta 1/4 kideek ordaintzen dituztelarik. Une honetan adineko-populazioaren heren baten ordezkari dirá. Adinekoekin zerikusia duten interesen erabakiak defendatzen dituzte gobernuaren aurrean, kreditu handiako antolamendua eta ordezkariak kontsultatu gabe ez da hartzen erabakirik. Urtean milioi eta erdi florin ordaintzen ditu Gobernuak eta gainerakoa kideen kotizazio-bidez osatzen da.

Aipatutakoaz gainera, Adinekoen Antolamendu batzu ere badira gobernuaren politikagintzan parte hartzeko bideak jartzen dituztenak, adinekoen egoeraz eta premiez botere publikoak informatzeaz arduratzen diren organismoak. 1981ean lau elkarte handiren artean 450 mila pertsona zeuden ordezkaturik.

Elkarte hauek *"Adineko Pertsonen Ongizaterako Nederlandar Federakundean"* bildu ziren eta entzute handia lortu zuten Ministraritzen aurrean. Langile jubilatuek eta erdi-kласekoek gehiengoa osatzen dute bertan.

Bussumen, 30.000 biztalen artean % 20ko adineko-kopurua duen herrian, udalak adineko pertsonen dei egin die 3. *adinekoen politika bat* lantzeko, adinekoek berek parta hartuz. Horretarako lau urratsa eman dirá:

1. 1.000 pertsona adinekoren artean inkesta bat burutu da bizi-baldintza eta premiei buruz. Laguntza-eskarian % 70 auzok bete zitezaketen, profesionalengana jo gabe.
2. Hiru hilabet geroago inkestatzaileekin hilerak egin ziren gizarte-politikazko proiektu bat burutzeko.
3. Laguntza-eskariei erantzuteko adinekoek berek antolatu zituzten partaidetza-taldeak (hilabete baten buruan ehunen bat zerbitzu desberdinen eskaintzak eta eskarriak sortu ziren).
4. Aurrekontu bat botatu zen udalean politika aurrera eramateko, eta borondatezko pertsonen lankidetzari esker aurrekontu hori murriztu egin ahal izan da denbora igaro-ala.

Aiemanian, *Braunschweigeko kantoian* dauden 170 zainketa-etxeak eskualdeko bilera batean antolamendu orokor bat sortu dute eta adineko pertsonak ostatupean daukaten etxeekin zerikusia duen legeren bat agertzera doanean partaidetza aktiboa hartzen dute berau lantzen. 1982ko udaberrian irten zen lege murriztaile baten aurkako protestan sortu zen etxeen kontseiluaren iniziatiba.

Rhenaniako Wuppertalen eta 50 urte-tako emankume baten eraginez *"Graue Panther" (Pantera Grisak)* erakundea sortu zen adinekoak babesteko. Adinekoak adinekoen arduratzea eta jabetzera du helburu, auto-defentsa zentzua landuz eta diñaren araberrako segregazioa baztertuz. Estereotipak eta irudi negatiboak ezeztatu, adinekoen indarraz kontzientzia harrerazi, solidaritatea indartu, egoera material, politiko eta soziala hobetu eta gainerako adinekoek kontziantzia harrerazi gaurtik lan egiten ez badute bihar-ko "zahar zokoratuak" izango direla ikuse-raziz, guzti hau eginez gizarte-borrokarako mugimendu bihurtu da. 1982an 1.000 kide-tatik gora zituen.

Hessengo Kasselen bada.

Lebensabend-Bewegung (Biziarrats-Mugimendua) adinekoek sortua eta bultzatua gizarte bizitzan eta politikan parte hartzeko bereziki berekin zerikusia duten arazoetan. Areto ugari zabaltu ditu herri askotan zehar eta ekintzak honako sailetan burutzen dituzte: informazio, elkarlaguntza eta eskulanean eta mugimenduak badu bere prentsa-organoa ere: *"Aktiver Lebensabend"*. Urteroko

biltzarrea antolatzen du adinekoen ordezkarietaz gainera, mundu honekin interesaturik eta bertan profesional gisa ari diren askok ere parte hartzen dutelarik. Kotizazio, dirulaguntza eta lañen batzuetatik kobraketa funtzionatzen du.

Konrad Adenauer Fundazioak ere antolatatu ditu bi Biltzar adinekoek beren kidekoen mesedetan esperientzia komunikatzeko, lau eta hiru egunetakoak "Gerra osteko Alemanian izan ditugun esperientziak-Etorkizunerako orientabideak" izenburupean. Gastuak antolatzailerak eta partaideen kuotek ordaindu zituzten.

Danimarkan Adineko Pertsonen *Alderdi Politiko bat* sortu dute beren interesak babes-teko eta legegintzarako hauteskundeetan % 1 inguru atera zuen. Zahartasuna ez dela gaisotasuna derrigor eta ez duela zertan karga bat izan beharrik onarterazi nahi du, asistentzi kontzeptua baztertuz eta izaki autonomo gisa dituen eskubideak baliaraziz.

EGV (Adinekoen Laguntzarako Elkartek) bere arautegiaren lehen artikuluan dio "hiritar oso izan daitezten adineko pertsonen beren arazoak konpontzen laguntzea, gogara eta aktibo gizartean izanez". Eta gizarte-bizitzan parte hartzeko aukerak eskaintzea bidé bezala jarten du horretarako. Beraz adineko hiritarren hani eta premiak errespetatzea da helburu nagusia. Erakunde desberdinen erabiltzailek 70 hautatzen dituzte beren artean EVGko asanblada orokorraren 220ren parte bat osatuz. 70 hauek hiru hautatzen dituzte 28 kide dituen administrazio-kontseilurako. 10 kide dituen elkarte-batzordean haie-tako bat sartuko da. 1980az geroztik onarturik dago *adinekoen ordezkari-tza administrazioan*. Guztira 70 bat erakunde daude ordezkaturik. EGVn. 1976ko lege bat dago adineko pertsona derrigor ordezkaturik egon behar duela dioena berarentzako erakunde guztietan. Gaiso psikikoak dituzten zentruetan hau zaila gertatzen da baina Danimarkak ekin dio demokratizazio-era honi.

Erresuma Batuan "*Task Forcé*" elkarteak arduratzen da adinekoak beren ghettotik aterazteaz, beren bizi-egoeran eragina izateko aukera eskainiz, jubilatuei beren bizimodu hobetzeko bideak urratuz. Horretarako elkarrekiko irteerak, talde-aisialdiak antolatzen ditu (Kensington eta Westminsterren, adinekoen bizi-baldintzekin eta udal-proiektuekin zerikusia duten informazioa agertzeko eta emateko elkarte aktiboak ditu (Newington eta Tottenham), eta lan-bila dabilzan jubilatuentzat bulego-lana egiten duten elkarteak ere baditu.

Frantziari dagokionean *PAP 15 ek Bre-tainan egindako inkestak* dirá ohargarri adinekoen premiak detektatu eta politika koherente eta moldatu bat egiteaz denaz bezainbatean. Jubilatuek berek parte hartzen zuten inkesta hauek prestatzen eta burutzen ere. Emaitzak argitara ematen dirá eta sarritan bileretako eztabaidagai bihurtzen dirá.

Belaunaldi arteko Poltsa bat ere badago "Association des Ages" elkarteak sortua, jubilariorik gabekoen osagarri bat eskaintzeko etorkizuneko eta belaunaldi gazteagoekin autoritatezko eta dependentsiazko ezbestelako harreman batzuetarako. Gaurko ikasleak eta biharko jubilatuek harremanetan jartzen dirá. Kontratu bat sinatzen dute "aitabixiak" bere "semebitxi" edo "alababixiak" poltsa baten baliokidea luzatzen diolarik bizitza profesionalean errotur arte lagunduz; diru hori aitabixiak pentsio-osagarri gisa jasoko du jubilariorik adinera iristean.

Italian, parrokiak batzuren inguruan badira zenbait iniziatiba gazteek sortuak adinekoak bazterturik gera ez daitezten eta gizarte-bizitzan parte har dezaten: "*Nuova Base*" deritzon 30 gazte lan egiten dute Genzanoko parrokiak, eta besteak beste, aldizkari bat argitaratzen dute adinekoekin batera.

Gruppi Servizio Anziani deritzon adinekoen laguntzeko 60 bat elkarte ditu bere baitan eta 3.000 pertsonari eskaintzen die laguntza. Erromako *Sant'Egidio* udalerriaren 120 gazte borondatezko bizikidetzan hartzen dituzte adinekoak komunitate bat antolatuz eta giro afektiboa eskainiz.

Zainketa-Osasuna

Sail honetan osasun eta gizarte egiturak, ospitalizazioaren aurre-osteak, prebentzio fisiko eta mentala eta bestelako zenbait zerbitzuren alorrean egiten direnak aztertuko ditugu herrialde-herrialde.

Frantzian honako iniziatibak aurkitzen ditugu: *4º Adinekoentzako Egintza-Koordinazioa*, erabat edo une baterako beren autonomia galdua duten adinekoen aldeko bururapen sozialak orientatzeko eta koordinatzeko. Bi establezimendu eta bi zentru ditu: Iparraldean 114 oherekin eta sendakuntz unitate bat Bordelen. Eta abegi-etxeak iseren 40 bat ohe ingurukoak.

Issy-Les —*Moulineaux-en*—. *Egunezko Zentru* bat dago, ahal denean ospitalizazioa eragozten duen prebentzio-egintza batez

eta behar denean erakunde baterako sarbidea errazten dueña. Adinekoari gizarteratzea ere errazten dio, inoren alde zerbait egin lezakeelako ustea eta konfidatza berarengan sendotuz. Zentru hau erabat jabetzen da adinekoaren egoeraz eta alderdi guztietan eskuratzen dio laguntza, somatiko, psikologiko edo soziala delarik ere. Egunean zehar talde-gimnasia, kinesiaterapia, hidroterapia, psikomotrizitatea, ergoterapia, talde-eztabaidak, zeramika, ehungintza, pintura, ibilladiak, erakusketetarako bitzak eta abar bezalako zerbitzu eta ekintza-aukerez balia dateke bertara datorren adinekoa.

CANTOU Okupazio Baliagarritatik Aterako Animazio Naturaleko Zentruak ere beren autonomia galdu duten adineko pertsonen bizi-baldintzak hobetzea du helburu, psikologikoki eta sozialki adoretuz, talde txo bat eratuz, zahartzeak berekin dakarren inboluzioari eraso, ahalik eta denbora luzean beren etxeetan jarraitzeko gai izan daitezen.

Behartsuen Senide Txikien Abegi-Apartamentuak aukera ematen dio ospitaletik irten berria denari piskanaka bere autonomiaz jabetzeko eta eguneroko bizitzara moldatzeko.

Prebentzio fisiko eta mentalerako *Gerontologi Zentru* bat dago Parisko Maison de Cure Medical "Sainte Péline"n. Zahartzearen araketa funtzionaleko zerbitzu honek biologi, klinika, fisiopatologi eta estudio mediku-psikologiako departamentuak ditu. Ikerketa ugari burutzen da bertan. Erakunde publiko askoren artean finantzatzen da.

Irakaskuntza Nazionalako Mutua Orokorrak Pariseko eskualdean *Klub bat du zahartze-inboluzioaren aurka* borroka egiteko, bereziki entzumena eta ahotsari dagokionean. Entzutezko gimnasi-saioak egiten dirá entzumena hobetzeko, protesiak ere eskuratuz. Voxterapiaren bitartez ahotsa garbitzea ere lortzen da, kantatzeko aukera emanez. Arnasketak ere egiten dirá odolaren oxigenazioa hobetzeko ere.

Alemanian *Egunezko Zentru Gerontopsikiatriko* bat dago Baden-Wurtembergeko Heilbronnen, adinekoen gaitasun eta ahalmen fisiko eta psikokoak mantendu eta hobetzeko helburuarekin, beti ere autonomia handiago bat eskuratuz ingurunearekiko, eta ospitalizaziorik gabe irauteko. Astelehenetik ostiralera hogeikoren bat hartzeko moduko eraikuntza da.

Zainketa-etxe batean Birgaikuntzako Animazioa antolatu du Stuttgarteko udal tea-

troak eta gizarte-laguntzarako antolamendu batek. Helburua zainketa-etxeke jubilatu depresibo eta apatikoaren egoera negatibo horren aurka borroka egitea da, zerbaitz interesatzera eta hitz-adierazpide bat izatera bultzatuz. Horretarako teatro-talde amateur bat sortu da aktore profesionalen gidaritzapean eta bi urtelako epea izendatu zaio esperientziari. Grabaketak egiten dirá bideoz eta nor bere burua ikusteak eragin estimulatzailea izaten du portaera aldatzeko.

Ortotanasiazko praktikak direla-eta Gerontologiako Elkarte Alemaniarrak biltzar egin zuen 1981ean, kontutan izanik gero eta jende gehiago hiltzen déla erakundeetan bere inguruko eta senideengandik urrun. Hiltzera doazenei eman behar zaien laguntzaz kontzientzia hartzera bultzatzea litzateke helburua batez ere erakundetako pertsonalari dagokionean.

Erresuma Batuan, Osasun eta Gizarte-Segurantzako Ministraritzaren menpean *Egunezko Ospitale geriatrikoak* sortu dirá, usadiozko ospitaleen osagarri gisa, adineko pertsonak birgaitzeko, besteak beste, ospitalaldi luze baten ondoren edo baliaezinari ondorioz bere etxean bizitza egiteko moldaketa baten premia duenean.

1978an talde bat sortu zen Avonen *mentalki urrituriko adinekoen familiei* laguntzeko eta Bristol, berriz, telefono-zerbitzuaren bitartez "mentalki urrituriko adinekoei" laguntza bat eskaintzen zaie gau osoan zehar funtzionatzen duelarik.

Gueynedeko udalerrian *Gauetzko Zainketa-Zerbitzu bat* dago adineko gaisotuek erakundeetan sartu beharrik izan ez dezaten. Askier merkea da zerbitzua eta horretarako zainketariak prestatu dirá gauetz gaisoei laguntza eta erremedioak eskaintzeko. Beste zenbait udalerritan ere badira antzeko zerbitzuak, batez ere gaisoak dituzten familiei laguntzeko.

Osasun eta Gizarte-Segurantzako Ministraritzak *Ekintza Psiko-terapeutikoak* antolatuak ditu ahalmen mentalak murrizten ari zaizkien adinekoei laguntza eskuratzeko. Bidegrabazioak, sinboloak, musika... erabiltzen dirá Mendearen hasiera gogorazteko, honela iraganeko oroitzapenak iradokitzen zaizkio adinekoari eta estimulaturik sentitzeko aukera eskaintzen zaio arras aldatu zaion ingurune batean inhibiturik egoetarako dakarkion mugaketa gainditzeko.

Ospitale batzutan badira *Unitate Geriatrikoak* adinekoa ospitalizaziorako prestatzen

dutenak eta ondoren berriz etxera itzultzeko. Rochdaleko ospitaleak bi urtetan 600 adineko pertsonari eman die laguntza hau zenbait astez ospitaletik irten eta etxeratu ondoren terapeuta bat, bi gizarte-aisitente eta 10 zainketariz osaturiko ekipo baten bitartez.

Oldham udalerrian *sistema konputerizatu* baten bitartez erregistratzen dirá adinekoen deliak eta berauen iragan medikala memorian dagoelarik erizain-ekipo mugikor bat arduratzen da 24 etxe isolatutan dauden adinekoei beharrezko zerbitzuak eskaintzeaz.

Milton Keynesen merkatal zentru bat arduratzen da bezero ezinduek, adinekoak zein bestelakoak, bertaratzeaz. "Shopmobility" deritzon doako zerbitzua da eta zentrua iristean bezeroak erreserbaturik dauka telefonoz eskatu duen gurpilaulkia eta bapatean irakasten zaio ñola erabiltzen den.

Herralde Beheretan, Oudshoornen bada *Abegi eta Zainketa-Etxe* bat, *Egunezko Ospitale* era badena. Gaisoak beren ingurunera birmoldatzea du helburu. Honetarako zainketa somatikoak hiru mailatan, zainketa geronto-psiatrikoak hiru mailatan eta animazio-gizarte bizitza helburu terapeutikoekin aurkitzen dirá beronen ekintzen artean. Errentagarritasun handiko obra da.

Italian *Golgi Egunezko Zentru Geriatrikoa* dago Milanen eta ospitalean eta ospitaleostean adinekoaren era guztietako premiei erantzutea du helburu. Honetarako 2 mediku, 5 erizain eta fisioterapeuta bat daude taldean. Astelehenetik ostiralera zabalik dago zentrua eta autoz ekartzen eta eramaten da gaisoa. Estatuak 2.200 peseta ordaintzen ditu gaisoko.

Alarma-Sistemak

Adinekoak bere buruaren ustezko edo benetako ahuleziaz duen kontzientzia, eta sarritan bizi duen isolamendua arerio gogor bihurtzen zaizkio bakarrean edo autonomia betekin bizitzeko. Isolamendu-sentsazio hau geinditu eta komunikazioan dagoela sentitzera bultzatzen duten sistema guztiak garrantzi handiko bihurtzen dirá, batez re gaiso edo ezindurik daugenen kasuan.

Danimarkan zenbati udalerritan *Udaletxetik egunero dei egiten* zaie bakarrik bizi izateko adinako autonomia duten adinekoei. Adineko hauek telefono-postu bat baino

gehiago izaten dituzte etxan zehar. Udala arduratzen da behar dueña bidaltzeaz.

Erresuma Batuan, zenbait *udalerritan alerta-sistemak* daude irratibidez funtzionatzen dutenak, hatzamarrez sakatuz edote kea, hotz handiegia edo adinekoa ohituraz sarri zapaltzen duen gune batean falta sentitzean berez martxan jartzen den sistema batez. Seinalea zentral batera iristen da eta bertatik zaindari bat jartzen da harremanetan arazoa konpontzeko. Sistema honek 11.000 apartamendu dauzka loturik eta 100 banakako etxe. *Teacher's Benevolent Fund* da honetan nabarmendu den elkarteetako bat.

Frantzia ere bada *Telefono-Línea* bidez funtzionatzen duen emisore txiki bat etxetan jartzen dena adinekoen segurtasunerako eta 24 orduz Harrera-Zentralean pertsonal espezialduak kontrolatzen dueña.

Garraioak

Estatu frantsesean, Britainiako Lannionen inkesta ugari burutu dirá eta garbi ikusi da garraioen arloan dauden premia nabarmenak baserri-eremutik herri txiki edo hiriguneetara lekualdatzeko. Beharizan hauei erantzuteko herriak *onmibus txikiak* erosi ditu, kabiera mugatua dutenak eta hórrela garraio publikoen anonimato eta masifikazioari ihes eginez harremanak errazteko moduko dimentsioak eskaintzen dituzte. Ibil-dibeak ospitale, kanposantu, hiriaren erdigune eta hiriak dituen lau udalerrietara joateko zerbitzuak eskaintzen ditu.

Britainiako sei udalerrri isolaturik bizi diren adineko pertsonen tasa handia du eta bakartade hau gaintzen laguntzeko, *astean behin taxi* batek ibilbide bat korritzen du udalerrriaren ingurumarietan erabiltzaile bakoitzari 1 F. 20 eskatuz. PAP 1 5 edo Lehentasun Egintzako Programak laguntzen du diruz honetan.

Bestalde, Garraio Ministraritzak *Mugikortasun Mugatuko Pertsonen Erabilerarako Errepide-Gida* bat argitaratu du. Pertsona ezinduek hobeki gizarteratzea du helburu gida honek eta bertan kolorez adierazita dator pertsona ezinduentzako irispidea eskaintzen duten zerbitzuak zein diren eta ondoren Frantziako autopistak eskaintzen dirá zerbitzugune bakoitzean ezinduentzako sarbiderik dagoen ala ez aditzera eman. Doan banatzen da gida hau.

Alemanian, *trenz bidaiatzen duten ezinduentzat* gurpilaulki erabilerraz bat dago doan eskatzen dutenen eskura aurrez adieraziz gero. Ezindua norbaitekin doala espero izaten da baina behar izanez gero trenbideko pertsonalak laguntzen du trenera igotzen eta bertatik jaisten. Ekipaitegian egoten da gurpilaulkia.

Saxonia Behereko Soltaun, herria eta auzategi baten arteko garraibiderik ezaren aurrean, zenbait adinekoren eta jubilatuetxe bateko kontseiluaren artean garraio-zerbitzu bat antolatu da kotizazioen bidez erabat autofinantzatzen dena.

Berlinen "*Telebus*" deritzan adineko pertsona ezinduentzat aproposa den garraio publiko-modu bat antolatu da. Hiru urte eta 30 milioi dolar kosta da eta beronen bidez minibus-sare batek lotzen ditu irratiz Mendebaldeko Berlinen desplazatzeko eragozpenak dituzten 4.000 pertsona. "Telebusak" ordenadore baten aginduei erantzungo die desplazamendu bakoitzean ibilbiderik egokienak zein diren jakiteko.

Erresuma Batuan, "*Task Forcé*" elkar-teak garraibide urriko eskualde batean desplazatzeko aukera eskaintzen die adinekoiei eta ezinduei. Autobús hauen gidariak borondatezkoak izaten dirá eta asteroko txandatan aritzen dirá.

Danimarkan, tokian tokiko agintarien egintzari esker, adineko pertsonak *doan izaten dute garraioa gaisoaldian*: tratamendu medikal edo paramedikalerako, medikuarengana joateko, ospitaleratzeko, egunezko zentru batera joateko eta adinekoen klubetara joateko, ezinduen kasuan.

Gaur eguneko eta etorkizuneko joera politikoak adineko pertsonen mesedetan europar elkarteko zenbait herrialdetan

Hamar herrialdeetako politiken joerak laburtzen dirá hemen, 1982ko uztailean Viennan Zahartzeari buruz ospatu zen Mundu-Biltzarrean Gobemu desberdinek agertutako txostenen arabera. Ikusten denez, oso ikuspuntu desberdinak daude oro har eta zenbait tokitan "zahartzeari buruzko politika bar" dagoen bitartean, beste zenbaitetan politika orokorraren barman hartzen dirá kontutan adinekoak.

BELGIKA: Estatu mailan pentsio-errejimenaren berrikuntza-planak piskanaka pentsio-adina eraistea dauka helburutzat jarriarik, baita 60 urteak betez gero lan mugatua edo partziala egiteko aukera eskaintzea eta 65 urteetatik aurrera lañen batean jarrai-

tzekoa ere sariketa mugatu 65 urteetatik aurrera lañen batean jarraitzekoa ere sariketa mugatu batekon. Gobernua adineko ezinduentzat egunsari bat finkatzeko asmotan dabil, pentsio urrikoen sariak areagotzearen bila eta aseguratu sozialei informazioa erraz eskuratzeko eta formalitate administratiboak soiltzeko ahaleginak egiten. Politika orokor honek jardunbide bereziak ditu komunitate flamenkoaren eta komunitate frantsesaren baitan, bakoitzak dituen ezaugarri soziologikoen arabera.

DANIMARKA: Adineko pertsonen Danimarkan eskaintzen zaizkien zerbitzuak puntu askotan desberdintzen dirá Europako beste herrialde industrialduetan eskaintzen zaizkienekin alderatuz gero. Egitura medikal eta soziala, ñola publikoa hala pribatua, ia bere osotasunean zergabidez finantzatu da eta udal-agintariak administratua. Etxerako zerbitzu genienak doan dirá eta erakundeetako zerbitzuak ere ia denak doan dirá adinekoentzat eta pentsio onak dituztenek huskeria bat ordaindu behar izaten dute. Beste herrialdetan ez bezala, organismo pribatuek garrantzi txikia dute alor honetan eta EGV bezalakoak sektore publikoaren esanetara daude. EGV borondatezko organismo irabaznahigabea de bere 3.000 enplegaturekin (1.000 borondatezkoak dirá) 3.º adinekoen bozeramailea. Politikari dago-kionean eta etxebizitzaren alorrean adinekoen autodeterminazioa independentzia eta berdintasuna dirá gidari eta ahaleginak ildo honetatik bideratzen ditu gobernua. Gizarte-politikari dagokionean udalen gain doa premiak detektatzea eta zerbitzuak eskaintzea. Politika orokorra une honetan 275 udalerritan dauden 145 jubilatuetxe urretara doa. Heriotzak ia denak etxetik kanpo gertatzen dirá eta gobernua hiltzera doazenei etxetan laguntzearen alde ekonomi konpentsazio bat eskaintzearen bidetik ari da lanean. Zainketa instituzional gehienk fondo publikoak finantzaturiko jubilatuetxeek ematen dituzte. Danimarkan ez dago egonaldi luzetarako ospitale geriatrikorik.

FRANTZIA: Jubilatuen eta adinekoen ordezkari hobe lortzea eta beraiekin zerkusia duten erabakietan gero eta sartuago edukitzea da politika orokorraren orientabidea. Horretarako Batzorde nazionala, Erregio-mailako Biltzarrak eta Departamendu-mailako Komiteak bideratzearen bitartez egin nahi da hau. Deserdiratzea beharrezkotzat jotzen da. Zahartasunaren kostuak asko igo direlarik, gero eta handiagoa den zama honi aurre egitea da helburu nagusia, errentak solidarioki adinekoen eta langabetuen artean banatuz. Bestalde ahalegin bereziak egiten dirá zahartasunaren prebentzioan eta etxera-

ko zerbitzuak areagotuz, bizileku banakakoak eta kolektiboak indartuz. 1982an 15.000 klub zituen. Erakundeetan adinekoak edukitzearen politika arindu beharra ikusten da. Informazio, formazio eta ikerketa-mailan lan nabaria egiten da: jubilatuentzako irratia bat, ikerketa gerontologikoak eta nazioarte-mailako trukaketak. Une honetan ikertzen ari diren gaiak: zahartasun-politika, familia, zahartzaroko dementzia, etxean edukitze-sistemak, erakunde-bizitza, osasun-arazoak, kargu-egiteko sistemen ebaluaketa.

GREZIA: Gobernuaren egitura administratiboak arduratzen dirá adinekoek, batez ere Gizarte-Zerbitzuetarako Ministraritzaren bitartez. Epe laburrean udal-mailako agintarien eskutan adinekoekiko ardurak jartzea espero da administrazioa hurbilagotuz eta hobetuz. Grezian ez dago geriatrian espezialduriko ospitalik ezta zerbitzur geriatrikorik ere ospitaleetan. Epe laburrean espero da adinekoentzako osasun-zerbitzuak guztientzako barruan integraturik egotea eta doakoak izatea. Famili mediku bakoi-tzak genienera 2.500 paziente izango ditu. Prebentzio-lana oraindik hasten asi da. Orain arte adinekoa instituzioaren kargupean egon da (adineko populazioaren % 0,5entzat bakarrik du harmena) eta orain hasi dirá etxerako zerbitzuak garatzen, Atenasen batipat. Greziak munduko mediku-tasarik altuene-takoa du baina banaketa oso irregulara, letik 10erako gorabeherekin, eta plangintza hobetu nahi da, mediku eta ohe banaketa errazionalago baten ildotik. Hiriguneetan oinarritzko zainketarako zentru-sare bat ezarri nahi da. 1981az geroztik pentsiorik hartzen ez duten eta nekazal populazioaren urteroko pentsioa baino errenta handiagoak ez dituen 70 urtekoak hileroko 4.000 drakma jasotzeko eskubidea du. Eraikuntzaren alorrean oraindik ez dago adinekoen arazoei begira legeria sistematiko bat soiuziobideak ezartzeko. Ikerketari dagokionean datu gutxi dago adineko populazioaz eta etorkizunean egingo diren ahaleginak populazio orokorraren mesedetan egingo diren hobekuntzen barruan adinekoak faboratzearen bide-tik doaz. Osasun eta gizarte-arazotarako egiten diren gastuak oso mugatuak dirá Europako beste herrialde batzurekin alderatuz gero: NPGren % 5,2era ez da iristen.

ITALIA: Datozen urteetan adinekoen populazioa laurden bat izatera iritsiko da eta egitura ekonomiko eta sozialak hobeki planifikatzeko adinekoen populazioaren ezau-garr demografikoak zehatzago ezagutu beharra sentitzen da. 1982-84erako Osasun-Plan Nazionalak helburu hauek ditu: adinekoa ahal déla etxean eduki, zerbitzuen kalitatea hobetu kontzientzia gerontologiko bat lan-

duz, prebentzioa eta berrezkuntza garatu, justifikazioagabeko ospitalizazioak eragotzi, gaiso kronilo ez-autonomoen aldeko ihar-duera-politika zuzen bat planifikatu, adineko pertsona autonomoen bergizarteratze-prozesu bat abiarazi eta egintza psiko-sozialak aurrakuso. Guzti honetarako behar diren inkesta burutuko dirá eta 3.º adinekoen espezialistei lehentasunezko tratua emango zaie. Etxebizitzaren alorrean adinekoen premietara egokitu beharra ikusten da oro har, nahiz eta era guztietako formulen saioak egin diren. Jubilazioak pentsioen banaketarekiko loturan erabat berraztertu beharrean daude. Lanetik jubilaziorako pasabidea bigundu beharra ikusten da eta adinekoen formazioa sendotzearena ere bai, taldeetan parte hartzera bultzatuz. Komunikabideei 3.º adinaren irudi desberdin bat ematea eta beronen arazoez hitzegitea eskatzen zaie.

IRLANDA: Osasun eta Zainketa-zerbitzuei dagokienean, 1985ean sorturiko ministraritzarteko batzorde bat arduratzen da egoera aztertzeaz eta bideratzeaz. Errenten arabera, hiru sailetan banatzen da populazioa eta eta irabazi urrienerako doan jasotzen dituzte zerbitzu-mota batzuek. Epe luze-rako osasun-beharrizanei erantzuteko lekuez gainera, eginezko ospitalaren premia sentitzen eta garatzen ari da une honetan. 1971az geroztik etxerako zainketa-zerbitzuak ere sortzen ari dirá. Halere baliabide-falta nabaria da' alor honetan. Bestalde pentsio-politikaren berregituratze erabatekoaren premia ere ikusten da. Etxebizitzari dagokionean, 1982n Gobernuak inkesta-batzorde berezi bat eratu zuen adinekoen bizilekuak hobetzeko asmoarekin. Gaur egun lantzeko dauden arazo bezala, adinekoa gizartearen integratzearena dago, Irlandan ere beste zenbait herrialdeetan bezala, jubilazioa bapatean eta brauki gertatzen bait da. Beharrezko ikusten da jubilatze-sistema malguago bat ezartzea, piskanaka lanetik baztertuz. Azken finean, zahartasunaren politika egoki bat falta bada, oinarritzko datuen faltarengatik da, ez bait dauka Irlandak eremu honen ikerketarako organismoak. Aurrerapentzat jo daiteke jubilazioa hamar urte lehenago prestatzen hasi eta hezkuntza bizitza osoan zehar landu beharko liratekeelako ideiak, gero eta onartuagoak bait dirá gizar-tean.

LUXEMBURG: Herrialdea txikia delarik ez dago koordinazio-arazorik. Ministraritz-Batzorde batzuek arduratzen dirá adinekoen arazoez eta Adineko Pertsonen Kontseilu Nagusiak biltzen ditu adinekoen arazotan aritzen diren ministraritz desberdinetako ordezkariak. Lotura ugari eta estuak daude

ministraritza-zerbitzuen eta antolamendu ez-gobemuzkoen artean. Etorkizunean etxean adinkoak edukitze-politika indartuko da. Adinekoen populazioa ugaldutakoala, agintariak azpiegitura indartu egiten dute. Asebetegarriztat jotzen da gobemuaeren politika pensio, etxebizitza, gizarte-bizitza eta laguntza desberdinen alorrean.

HERRIALDE BEHEREAK: Hiru ministraritza arduratzen dirá Hirugarren Adinekoentzako politikaz. Ministraritzarteko talde bat arduratzen da orientapen politikoz. Gerontologiako Institutu Nerrlandarrak buruturiko ikerketa ugarietan oinarriturik, gaur eguneko politika oraingo mailari esutera zuzentzen da, oro har onargarritzat jotzen bait da. Arazorik nagusia adinekoen populazioa hazi-ala zerbitzuak eta azpiegitura goera berrira egokitzearena da.

ALEMANIAKO ERREPUBLIKA FEDERALA: Adinekoen alde egiten den politika gizarte-politika orokorraren parte da, eta adineko pertsonen zailtasunak prebenitzea eta konponbidean jartzea du helburu. Xede nagusienak hauek ditu: bizimailari eustea isolamendutik eta erremustetik begiratu, segurtasun finantzarioa eta independentzia lortzea. Luzaroko gaiso kronikoentzat ez dago Gizarte-Segurantzarik eta zainketa hauek behar dituzten pertsonen % 70 laguntza sozialaren beharrean aurkitzen dirá, la milioi erdi pertsona bizi dirá 6.000 erakundetan Alemanian zehar. Lehenetsuneko lau puntuak honako hauek lirarteke: Zainketa-zerbitzuen estankatzea prebenitzea, etxerako zerbitzuetan behar den pertsonala kantitatez eta kantitatez segurtatzea, egunezko eta etxerako zerbitzuetan erakundeetakoekin adinako garrantzia edo handiagoa ematea eta familiak eskaintzen dituen zainketen baldintzak berrikustea.

ERRESUMA BATUA: Botere Publikoak arduratzen dirá adineko pertsonen premiez, baina ugariak direlarik antolamendu pribatu eta borondatezkoek ere parte hartu behar izaten dute. Gainera Gobernuak usté du ez berak bakarrik, baizik eta bereziki familiak, adiskideek eta komunitateak arduratu behar duela adinekoen inizatiba ez-ofizial eta borondatezkoen bitartez. Gobernuak prest dago sare herritar zabal bati eusteko, erantzukizun nagusia komunitatearen esku utzirik. Pensio-politikak adinekoaren independentzia lortzea du helburu. Bestalde jubilazioa prestatzen lan egin nahi da, askatasun handiago utziz bakiotzari unea hautatzen. Isolamenduaren aurka borroka egitea beharrezkotzat jotzen da. Gobernuak behar duen guztiari lehenetsunez etxebizitza eskuratu behar dio.

Adinekoen % 2,3 agintari lokalek subentzionaturiko etxetan bizi da. Zahartasunaren ondorioak biguntzen lan egin beharra sentitzen da. Zerbitzu sozial eta medikalen finantzaketa-egitura anizkuna oso interesgarria gertatzen da, nahzi eta oraindik lankidetzabide berriak ikertzeko dauden. Ahal egin gerontologi handia ari da egiten Osasun-Ministraritza ospitaletako zainketa hobetzeari dagokionean. Ikerketa alorrean, azken hamar urteetan ahal egin handia burutu da, adinekoen independentzia indartzeko datuak bilduz. Mintegi monografikoak antolatzen ditu ministraritzak adinekoen arazoez.

Ondorioak

Hemendik 2.000 urtera bitartean 60 urtetik gorako populazioa urritu egingo da Luxemburg, Alemaniako Errepublika Federala, Danimarka eta Erresuma Batuan; aldiz, ugaldutako egingo da Italian eta Grezian, Belgikan eta Frantzian berdintsua izango delarik. Halere herrialde guztietan adinekoaren independentzia ahalik eta luzaroen mantentzearen aldeko politikaren premia ikusten da: etxebizitzak egokitze diru-laguntza eskainiz, eraikuntza aproposak eraikiz; arazo material, psikiko, psikologiko eta sozialak konpontzeko zerbitzuak eskainiz; ingurunearen solidaritatea areagotuz (familia, adiskide, auzo eta abarrena).

Bi kezka nagusi: Ekonomi krisitik sortutako edo areagotutako diren arazoei erantzun beharra eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzea beraien autonomia material, psikiko eta fisikotik igarotzen déla. Danimarka eta Herrialde Beheretan, "puntako" politika bat egiten den herrialdeetan, bi alderdiak uztartzen dirá. Joera orokorra da alojamendu kolektibo eta erakundetarako aurrekontua murriztea edo ez gehitzea eta parez-pareñor bere etxean edukierazteko zerbitzu eta laguntzabideak urratzea. Klasikoak bihurtzen ari dirá zentzu honetan honako zerbitzuok: etxerako laguntzak, etxerako janariak, klubak, osasun-zentruak... egunezko abegizentruak hitz batez, jakina bait da adinekoen autonomia beraien ekintzaren eta gizarte-sareen arabera déla. Elkarlaguntza eta solidaritatea zuzpertzeko ere garrantzizkoa da zentzu honetan, aurrekontuaren murrizketak urritu egingo bait du enplegatuen kopurua denborarekin.

Bistan dago "nork bere alde" eta "produktzioa-kontsumoa" esloganekin funtzionatu duen gizarteak berregituratze sakonak jasan behar dituela adinekoen parte hartze aktiboago bat izango duen gizarte kolektiboago eta solidarioago batean.

Xabier Mendiguren